

# MUNDO SANITARIO

Erizaintzarako eta Fisioterapiaren aldizkaria

Edizio berezia  
euskal

EUSKADI

eskualdeko  
hauteskundeak

EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK 2020

## Lehendakarigaiak elkarrizketatu ditugu

Lehendakaritzarako hautagaiek euskal erizaintza eta fisioterapiari interes berezia duten gaiak aztertuko dituzte, Covid-19aren pandemiaren testuinguruan

Bizi dugun krisi honen aurrean eta uztailearen 12ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundera begira, SATSE Euskadik lehendakarigaiak erizaintzei eta fisioterapeutei kezkatzen dien eta osasun-larrialdian berpiztu diren hainbat alderdiri buruzko iritzia jakin nahi izan du.

Horretarako, gure ustez bere legegintzaldian kontuan hartu beharko lituzketen gaiak planteatu genizkien, hala nola erizain/paziente ratioa, enplegua sortzea, erretiro aurreratua, A taldea edo eskolako erizaina.

### Helburua

Etorkizunean gerta daitekeen gorakada baten aurrean, eta azken aldi bizi izan dugun osasun-krisi handienaren ondoren, aipatutako gaiak jorratu ditugu, sor daitezkeen hurrengo alarma-egoerak hobeto kudeatzeko.

SATSEk ondoko erronka nagusiak ezarri ditu datoren urteetarako; arreta instituzional handiagoa lortzea eta Erizaintzarako eta Fisioterapiarako baliabideetan inbertsio han-



SATSEk lanbidearen errealitatea hurbiltzen die gure ordezkariak eta konpromisoak eskatzen ditu

diagoa egitea. Proposamen honen bidez, SATSEk politikariek erizaintzarentzat bereziki garrantzitsuak diren gaiak buruz dituzten jarrera ezberdinen ikuspegi bat eman nahi du.

Sindikatuak eskerrak eman nahi dizkie Osasun Munduaren edizio ho-

netan parte hartu duten guztiei. Jasotako iritzia hautagaiek adierazitakoak dira, eta ez du inola ere esan nahi SATSEk edukiekin bat egiten duenik edo haiekin ados ez dagoenik. Erizainen Sindikatua lotura politikotik urrun dago. ■

EDITORIALA

## Osasuna ez da ez erosten ezta saltzen



JOSE ANTONIO DE LENIZ  
SATSE Euskadiko Idazkari Nagusia

Koronabirusak krisi ekonomiko eta soziala eragin du. Herrialdea ezegonkortu egin da eta enplegua arriskuan dago. Orain ezin ditugu printzipio demokratiko irrimoak erlaxatu. Une honetan, gobernu berri baterako hautagaien artean aukeratzear gaudela, gogorazi nahi dugu garrantzitsua dela osasun publiko sendoa bermatuko duten proposamenak babestea.

Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu finantzaketa-eredu egonkor, nahikoa eta koherente berri bat definitzea, osasun-aurrekontua handituz.

Argi dago egungo eredu agortuta dagoela, eta egoera jasanezina dela. Eredu biomediko tradizionala, ospitaleratze-sistema eta arreta sanitarioaren eta zoziosanitarioaren zatiketa gaituzten erantzunak behar dira, baita hauen arteko benetako koordinazioa ere.

Gainera, osasun publikoko gastua arrazionalizatzeko aldera, komenigarritzat jotzen dugu osasuna sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko politiketan inbertsioa handitzea, batez ere lehen mailako arretaren eremuan, non uste baitugu eskola-erizainen figurak funtsezko zeregina garatzen duen.

«KRISIAK OSASUN-SISTEMA PUBLIKO BATEN BEHARRA PIZTU DU, BEHAR DIREN GIZA BALIABIDEekin ETA EKIPOEkin»

Garrantzitsua da erizain adituek erabakietan zinez parte hartzea. Parte hartze atal guztietan hauen presentzia areagotuko dugu. A1 fakultatiboen lanbide-sailkapenekoak gara, horrek ematen dituen baldintza eta ezaugarriekin. Beraz, ez dugu gutxiespen gehiagorik onartuko.

Gure lan-baldintzak eta pairatzen dugun estres handiak lan-gainkarga eragiten du. SATSEk gai horiek kanpainako agenda publikoan sartzeko eskatu du.

Krisiak osasun-sistema publiko baten beharra piztu du, behar diren giza baliabideekin eta ekipoekin. Osasuneko profesionalen egonkortasuna, bikaintasuna eta aintzatespena izango dira txalorik onenak. Osasuna ez da ez erosten ezta saltzen. ■

## Eusko Jurlaritzari berriari egindako eskaerak

- ▶ Erizainen lanbidea defendatzea, osasun-erreferente gisa.
- ▶ A taldea, bereizketarik gabe Euskal Enplegu Publikoaren Lege berria: erizaintza eta fisioterapiarako lanpostu guztietarako sarbidea.
- ▶ Erizain eta fisioterapeuta eskala bat sortzea goi-mailako teknikarien kidegoan, orain eraberritzen ari diren Kidego eta Eskalen Legearen barruan.
- ▶ Pazientearen Segurutasunari buruzko Legegintzarako Herri-Ekimena bultzatzea, erizain/paziente gutxieneko ratioa bermatzeko.
- ▶ Erizaina lehen mailako arretako funtsezko pieza gisa izatea.
- ▶ Lanpostu funtzionalei buruzko dekretua berrikustea: lanpostu berriak eta erizaintzako gaitasunak aitortzea.
- ▶ Erizaintza espezialista aitortzea: familiaokoa eta komunitarioa, pediatria eta geriatria.
- ▶ Lanbide Karrerako ezohiko deialdia eta ebaluazio-eredu berria.
- ▶ Erizaintzako borondatezko erretiro aurreratua eskatzea.



IÑIGO URKULLU, EUSKO ALDERDI JELTZALEKO LEHENDAKARIGAI

# “Osakidetza akordiorako prest dago”

Urkulluk Lehen Mailako Arreta indartzea nabarmendu du legegintzaldi honetako helburu gisa

Erredakzioa  
euskadi@satse.es

Agerian geratu da erizain/paziente ratioa ez dela nahikoa bizitako egoerei aurre egiteko. Bultzatuko al luke Jaurlaritzak erizaintzako plaza-kopuru bat sortzea erizain/paziente ratio egokia ziurtatzeko?

Ez nago ados baieztapen horrekin. Euskadi da biztanleko erizain ratorik handiena duen bigarren erkidegoa, Nafarroaren atzetik soilik.

Legegintzaldi honetan, gainera, ildo estrategiko batzuk garatu dira erizaintza indartzeko, besteak beste, Osakidetza erizaintzen plazarik gehitzea ekarriko duten neurriak.

Legegintzaldi honetan, lehen mailako arreta indartzea izan da helburua. Era berean, lanean ja-

rraituko dugu hala behar duten arloak bultzatzeko.

**Gure kolektibo profesionalen protagonismo, autonomia, erabakietan parte-hartzea eta aitorpen maila handiagoak bultzatuko lituzke?**

Izan ere, horrela ari gara egiten. Eusko Jaurlaritzak, Osasun Sailaren bitartez, profesionalen kolektibo horren parte-hartzea bultzatzen eta sustatzen ari da erabakiak hartzeko orduan, eta haien lidergoak bultzatzen. Helburu horrekin bat egin zuen iaz Nursing Now nazioarteko ekimenarekin.

Adibide argia da erizainek pandemia honi aurre egiteko erabaki-organoean duten parte-hartzea.

**Zure Jaurlaritzak lan egingo al luke euskal legeek unibertsi-tate-tituludun guztiak A talde gisa onar ditzaten, bereizketarik gabe?**

Jakin badakit egoera bidegabe batzuk gertatzen direla erizaintzat, titulazioa dela eta, batzuetan ezin baitituzte lanpostu jakin batzuk eskuratu, hala nola kudeaketa eta zuzendaritza lanpostu batzuk. Denborarekin, behar eta egoera berriak sortzen dira, eta horietara egokitu behar dugula uste dut.

**Moldatuko al lituzke Jaurlaritzak profesionalen lan-baldintzak bakoitzaren adinera egokituta, eta lan-ibilbide batean islatuta? Eta erretiro aurreratu sustatzeko?**

Eusko Jaurlaritzak hainbat negoziatio-forotan parte hartzen du eragile sozial eta sindikalekin, elkarriketaren bidez hobekuntzak adosteko langileen lan-baldintzetan, baita osasunaren esparruan ere. Gai horiek negoziatio-foroetan eztabaidatu eta erabaki behar dira, eta Osakide-



Iñigo Urkullu

tza akordiorako prest dago, beti egon den bezala.

**Estatuko Plataformak estrategia bati ekin dio gure autonomia erkidegoan, Euskadiko ikastetxe bakoitzean gutxienez erizain bat egotea lortzeko. Zer iritzi duzu SATSEk bultzatutako kanpaina honetaz?**

Eskola-eremua garrantzitsua da, eta irizpide egokienei jarraitu behar zaie. Erizaintza-sare komunitario bat sortzen ari gara, Osasun Publikoari eta Osakidetza-ri lotua, eta horrek aukera emango digu komunitatean, gizarte-eragileekin eta hezkuntza-esparruarekin arreta bultzatzeko. ■

MADDALEN IRIARTE, EH-BILDUKO LEHENDAKARIGAI

# “Ratioen ezarpenak pertsonal gabezian”

Ratioak ezartzeko legea onartzearen alde agertu da EH Bildu

Erredakzioa  
euskadi@satse.es

Agerian geratu da erizain/paziente ratioa ez dela nahikoa bizitako egoerei aurre egiteko. Bultzatuko al luke Jaurlaritzak erizaintzako plaza-kopuru bat sortzea erizain/paziente ratio egokia ziurtatzeko?

Bai, zalantzarik gabe. Ez soilik erizaintzarako, kategoria guztiak kontutan hartuko dituena.

EH Bilduk ratioak ezartzeko lege/araua onartzearen aldeko apustua egiten du. Argi daukagu, Osakidetza langileen ordezkaritzekin eta eragileekin adostu beharko liratekeela ratioak. Pentsatzen dugu, ratioen ezarpenak, arau bidez, lagunduko lukeela orain arte Osakidetza plantillan eta Osasun Saileko bestelako zerbitzuetan dagoen pertsonal gabeziarekin amaitzen. Ratioen neurria, EH Bilduk jasota dauka pertsonaleko kontratazio eta politika eredu berrian.


**Gure kolektibo profesiona-**

**len protagonismo, autonomia, erabakietan parte-hartzea eta aitorpen maila handiagoak bultzatuko lituzke?**

Bai, EH Bilduk erizainen kolektiboaren protagonismo, autonomia eta aitorpen maila handiagoa bultzatuko du, pasa den legegintzaldi honetan ere egin duelako. Gainerako kolektibo profesionaleri eman behar zaien eta zor zaien aitorpen maila berberekin. EH Bildurentzat Osasun arloan lanean ari diren profesional guztiak aitortuak eta aintzat hartuak izan behar dira. Guztiak beharrezkoak dira eta batez ere guztien arteko elkarlana, ekipo lana bultzatu eta garatu behar da.

**Zure Jaurlaritzak lan egingo al luke euskal legeek unibertsi-tate-tituludun guztiak A talde gisa onar ditzaten, bereizketarik gabe?**

EH Bilduk lehenik eta behin kidego eta eskalak bere osotasunean eta funtzio publikoaren baitan, beste eremu batzuetakoekin koherentzian jokatzeko azterketa egingo luke. Eta zentzu horre-



Maddalen Iriarte

tan erizainei ukitzen dien arazo hau konpontzen ere saiaturiko litzateke, garai batetako titulazioak azken urteetan egondako aldaketara egokitu ahal izateko molde zentzudun batean. EH Bilduk konpromisoa hartzen du gaia aztertze eta aztertu ostean, kolektiboarekin eta erizainen or-

dezkaritza sozialarekin iritzia partekatzeko.

**Moldatuko al lituzke Jaurlaritzak profesionalen lan-baldintzak bakoitzaren adinera egokituta, eta lan-ibilbide batean islatuta? Eta erretiro aurreratu sustatzeko?**

Aztertu beharreko kontuak

dira galdera honetan planteatzen dituzuenak. Orain arte gai horiei ez diegu heldu. Baina datozen hilabeteetan ebaluazio bat egin beharko da bere sakontasunean eta ateratako ondorioekin, egon daitezkeen aukerak aztertu.

**Estatuko Plataformak estrategia bati ekin dio gure autonomia erkidegoan, Euskadiko ikastetxe bakoitzean gutxienez erizain bat egotea lortzeko. Zer iritzi duzu SATSEk bultzatutako kanpaina honetaz?**

Ikastetxe guztietan erizaina egon behar denik ez dugu ikusten. Momentu honetan hezkuntza eremuan, behar bezala erantzuten ari ez diren eta lehentasunezkoak diren hainbat behar daude. Hala ere, Covid-19arekin bai planteatu dugu datorren ikasturtera begira, 200 ikaslelik gorako ikastetxetan erizain edo eta auxiliarra izatea eta 200 ikaslelik beherakoetan, auzoko edo herriko osasun etxeekin hitzarmenak egitea, ikastetxe komunitatearen osasun egoerari eta hartzen diren neurriek jarraipena egin ahal izateko. ■





MIREN GORROTXATEGI, ELKARREKIN PODEMOSEKO LEHENDAKARIGAI

# “Behar-beharrezkoa da maila guztietan”

Gorrotxategiren ustez, ziurtatu behar dugu gure osasun-sistema ez dela berriro kolapsatuko

Erredakzioa  
euskadi@satse.es

Agerian geratu da erizain/paziente ratioa ez dela nahikoa bizitako egoerei aurre egiteko. Bultzatuko al luke Jaurlaritzak erizaintzako plaza-kopuru bat sortzea erizain/paziente ratio egokia ziurtatzeko?

Behar-beharrezkoa dela ikusten dugu. Ezinbestekoa da maila guztietan ezarritako ratio-sistema berrikustea, gure osasun publikoko sistemak bizi izan duen kolapso egoera berriro ere gerta ez dadin.

**Gure kolektibo profesionalen protagonismo, autonomia, erabakietan parte-hartzea eta aitorten maila handiagoak bultzatuko lituzke?**

Osasun publikoaren ereduarekin eta herritarrentzat oro har nahi dugun “osasun-rako eskubidearen” defentsarekin, osasun-arloko profesionalak eta herritarrek osasun-sistemaren kalitatearen ebaluazioan par-

te-hartze handiagoa izan dezaten ahalbidetuko duten erreformak bultzatu nahi ditugu.

**Zure Jaurlaritzak lan egingo al luke euskal legeek unibertitate-tituludun guztiak A talde gisa onar ditzaten, bereizketarik gabe?**

Erizainak eta fisioterapeutak A taldearen barruan aitortuak izatearen aldekoak gara. Araubide iragankor bat ezin da diskriminazioa sortzen duen egoera bihurtu, are gehiago sektorearen feminizazioaren ehunekoari erreparatzen badiogu. Berdintasunaren eta genero-ekitatearen aldeko borrokaren bidez ere justifikatzen da neurri hori, eta konpromiso handia dugu horrekin. Behar diren erreformak egitearen alde gaude, A1 eta A2 funtzio publikoko egungo azpikategoriak bat egin daitezela (A) bakar batean eta, Bolonia Planaren erreformak ezartzen duen bezala, baldintza berdinetan onar daitezela gradu-titulazioen lorpenak.

**Moldatuko al lituzke Jaur-**



Miren Gorrotxategi

**laritzak profesionalen lan-baldintzak bakoitzaren adinera egokituta, eta lan-ibilbide batean islatuta? Eta erretiro aurreratu sustatzeko?**

Krisiak mahai gainean jarri du lan-segurtasunaren arloan inbertitzeko beharra. Lan-baldintza duinak ziurtatu behar ditugu

profesionalen osasuna bermatuta egon dadin. Haien funtzio soziala duintzea da helburua. Halaber, prebentzio eta balorazio-planak egitea beharrezkoa da, biziko dugun pandemia globalaren egoerara eta Estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekiko koordinazio-lanei dagokionez ezin-

bestean dakarren lan-kargara egokituta.

**Estatuko Plataformak estrategia bati ekin dio gure autonomia erkidegoan, Euskadiko ikastetxe bakoitzean gutxienez erizain bat egotea lortzeko. Zer iritzi duzu SATSEk bultzatutako kanpaina honetaz?**

Ongi etorria ematen diogu ekimenari, bat baitator osasun-sistemak ematen duen arreta sozio-sanitarioa hobetzeko gure proposamenekin. Gure programan, osasun-zentroetan eta horietatik kanpo osasun-hezkuntza sustatzeko programak garatzearekin lotutako neurriak ere jasotzen ditugu, bai eta erkidegoko jarduera-programak garatzearekin lotutakoak ere, komunitate-osasunaren ikuspegia lantzea ahalbidetuko dutenak, zentroetan prebentzioa eta arreta indartzeko.

Hori esanda, SATSEk bultzatutako ekimena politiken garapena sustatzeko orduan, interesgarria izan daitekeela uste dugu, non Hezkuntza, Zuzenbidea eta Osasuna indartuta aterako diren. ■

IDOIA MENDIA, EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTAKO LEHENDAKARIGAI

# “Negoziazio kolektiboa bultzatzeko prest nago”

Mendiak ibilbide profesional egokia bultzatuko duten neurriak defendatzen ditu

Erredakzioa  
euskadi@satse.es

Agerian geratu da erizain/paziente ratioa ez dela nahikoa bizitako egoerei aurre egiteko. Bultzatuko al luke Jaurlaritzak erizaintzako plaza-kopuru bat sortzea erizain/paziente ratio egokia ziurtatzeko?

Badakigu gure osasun-zerbitzuen eta zerbitzu sozio-sanitarioen erizain kopurua txikia dela herrialde garatuarekin alderatuta, eta gainerako autonomia-erkidegoekin partekatzen dugu arazo hori. Gure hautagaitzak hutsune hori nabarmen murrizteko konpromisoa hartzen du, tituludun langileen prestakuntza-sistemak ahalbidetzen duen neurrian, eta, horretarako, langile horien jardunari erakargarritasuna gehitzen dio,

plantilla nabarmen egonkortuz.

**Gure kolektibo profesionalen protagonismo, autonomia, erabakietan parte-hartzea eta aitorten maila handiagoak bultzatuko lituzke?**

Pazienteen beharrei behar bezala erantzuneko osasun-sistemak koordinazio eta lankidetzaren handia eskatzen du osasun-arloko profesional guztien artean. Erizaintzak funtsezko zereginak du sistema honetan. Pazienteei arreta emateko prozesuan, ekipoak eta lan-protokoloak diragakoa. Honi buruzko neurriak garrantzitsuena ekipoen eta protokoloen berrikuspen sistematikoa egitea da, eta neurri hori bultzatu nahi dut.

**Zure Jaurlaritzak lan egingo al luke euskal legeek unibertitate-tituludun guztiak A talde gisa onar ditzaten, bereizketarik gabe?**

Gai hau Funtzio Publikoko ordainsarien oinarriko araudiaren parte da, eta Estatutupeko Langileei ere aplikatzen zaie. Nire ustez, Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahaiko parte da, eta horri buruzko homologazio posiblea Negoziazio Kolektiboaren barruan kokatzen da, hautagai hau bere erantzukizunetik bultzatzeko prest baitago.

**Moldatuko al lituzke Jaurlaritzak profesionalen lan-baldintzak bakoitzaren adinera egokituta, eta lan-ibilbide batean islatuta? Eta erretiro aurreratu sustatzeko?**

Ibilbide profesional onena lortzen laguntzen duten neurri guztien aldekoak gara, eta horrek barne hartzen ditu lan-baldintza onenak. Baldintzak etengabe egokitu behar dira bilakaera teknologikora eta erizaintzako profesionalen gaitasunetara. Aurre-



Idoia Mendia

tik zehaztutako lan-ibilbide bat ezartzea baino gehiago, uste dut gure lan-osasuneko zerbitzuak indartu genitzakeela.

Bigarren gaia Negoziazio Kolektiboaren zati da. Kasu honetan, modalitate desberdinetan erretiroa hartzeko baldintzen erregulazioarekin bat etorri behar du. Era berean, gure hautagaia prest dago aspektu honetako negoziazioa bultzatzeko.

**Estatuko Plataformak estrategia bati ekin dio gure autonomia erkidegoan, Euskadiko**

**ikastetxe bakoitzean gutxienez erizain bat egotea lortzeko. Zer iritzi duzu SATSEk bultzatutako kanpaina honetaz?**

Kanpaina guztiak baliagarriak dira, gizarte-sistemen gabeziak adierazten dituzten neurrian. Gure programak barne hartzen du Osasun Publikoko Zerbitzuak Osakidetzan indartzea eta integrazioa. Honek, ziurtasunez eragingo du erizaintza-zereginak areagotzea hezkuntza-zerbitzuei dagokionez, osasun-zerbitzuekin duen sinergia aprobetxatzeko. ■





CARLOS ITURGAIZ, EUSKADIKO ALDERDI POPULARRAKO LEHENDAKARIGAI

## “Beharrezkoa da erizainen plazak sortzea”

Iturgaizek azaldu du urteak daramatzatela horien falta salatzen



Carlos Iturza Garmendia

Erredakzioa  
euskadi@satse.es

**Agerian geratu da erizain/paziente ratioa ez dela nahikoa bizitako egoerei aurre egiteko. Bultzatuko al luke Jaurlaritzak erizaintzako plaza-kopuru bat sortzea erizain/paziente ratio egokia ziurtatzeko?**

Covid-19ak eragindako krisiak, gure osasun-sistema proban jartzeaz gain, ahalegin handia eragin die osasun-arloko profesionalen beren onena eman baitute eta ematen ari baitira beren segurtasuna arriskuan jarritz. Lerro hauetan, gogora ekarri nahi ditugu Euskadin hilabete hauetan zehar hil diren erizaintzako bi pertsonak.

Argi eta garbi ezagutzen zen eta agerian geratu den gaitetako bat osasun-profesionalen eta, zehazki, erizainen falta izan da. Aspalditik ari gara euskal osasun publikoan giza baliabide gehiago eskatzen, eta halaxe defendatu dugu azken legegintzaldietan. Krisi honek nabarmendu du defizit hori. Horregatik, proposatzen dugu osasun-langileen plazak gehitzea, besteak beste,

erizainenak, oraingo eta etorkizuneko beharrei aurre egin ahal izateko, eta, ildo horretan, uste dugu beharrezkoa dela erizaintzako plazen kopurua sortzea, laguntza-maila guztietan ratio egokia bermatzeko. Langileen politiken barruan landu beharreko beste gai bat da gero eta gehiago eskatzen diren eta kalitatezko zerbitzua emateko beharrezkoak diren erizaintzako espezializazioak sustatzea.

**Gure kolektibo profesionalen protagonismo, autonomia, erabakietan parte-hartzea eta aitorten maila handiagoak bultzatuko lituzke?**

Zalantzarik gabe, krisi honek agerian utzi du osasun-arloko profesionalen iritzia alde batera utzi dela pandemia horri aurre egiteko hartu diren erabaki askotan, eta, gainera, ondorio zuzena dutela egiten duten lanean, eta komenigarria izango litzatekeela haien iritzia ezagutzea. Parte-hartze hori sustatzeko bide zehatzak defendatuko ditugu.

**Zure Jaurlaritzak lan egingo al luke euskal legeek unibertsi-tate-tituludun guztiak A talde gisa onar ditzaten, bereizketarik gabe?**

Euskadiko PPK gai horiek hurrengo legegintzaldian izapidetuko den araudian jorratzea proposatu du.

**Moldatuko al lituzke Jaurlaritzak profesionalen lan-baldintzak bakoitzaren adinera egokituta, eta lan-ibilbide batean islatuta? Eta erretiro aurretia sustatzeko?**

Krisi honek osasun-arloko profesionalen eta erizainenak duten lan-karga nabarmenagoa izatea eragin du, zalantzarik gabe. Konpondu gabeko gaia da hori, eta hainbat gai konpontzen saiatu behar da, hala nola lan-baldintzak, lan-ibilbideak...

**Estatuko Plataformak estrategia bati ekin dio gure autonomia erkidegoan, Euskadiko ikastetxe bakoitzean gutxienez erizain bat egotea lortzeko. Zer iritzi duzu SATSEk bultzatutako kanpaina honetaz?**

Argi dago ikasturte berriari begira neurri asko hartu beharko direla kasu berriak prebenitzeko eta antzemateko, eta, horien artean, ikastetxeetan erizaintzako langileak izateko aukera dago, eta oso kontuan hartu beharreko aukera da, oso erabilgarria izan litekeena. ■

Aintzatetsi  
itzazu!!  
Zu zaintzen



Krisian egon gara



Deseskaladan gaude



Gure osasunaren etorkizuna diseinatu nahi dugu



Erizaintza  
Sindikatu  
Euskadi

**MUNDO  
SANITARIO**

Erizaintzarako eta fisioterapia aldizkaria

Argitaratzailea: Erizaintza Sindikatua, SATSE. **Presidentea:** Manuel Cascos Fernández. **Idazkari autonomikoa:** Jose Antonio de Leniz. **Zuzendaria:** M<sup>a</sup> José García Alumbros. **Zuzendari teknikoa:** Olatz Rincón Azcárate. **Erredakzioa:** Iraitz Madariaga eta Nerea Aia. **Web helbidea:** <http://euskadi.satse.es>. **E-posta:** [euskadi@satse.es](mailto:euskadi@satse.es). **Erredakzioa eta administrazioa:** SATSE eraikina, Cuesta de Santo Domingo, 6. 28013 Madril. **TEL.:** 91 542 44 10. **Faxa:** 91 542 77 62. **Maketazioa:** Pie de Página. **Inprimaketa:** Rivadeneyra S.A. **Banaketa:** EMD Magazine Distribution S.L. **Lege-gordailua:** M-27798-1993.

**DATUEN BABESA.** Mundo Sanitario eta boletín digitalak editatu, argitaratu eta banatu egiten dira SATSEren jardura legitimoen esparruan. Datu pertsonalen titularrak baimena eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta errebozkatzeko eskubidea dute ondoko helbide elektronikoan: [equipo-dpd@satse.es](mailto:equipo-dpd@satse.es). Babes-ordetzaria-rengana ere jo dezakezu: SATSE bidez [privacidad-dpd@satse.es](mailto:privacidad-dpd@satse.es) -tik. Gure babes politikari buruzko informazio gehiagorako: [www.satse.es/aviso/politica-de-proteccion-de-datos-de-satse](http://www.satse.es/aviso/politica-de-proteccion-de-datos-de-satse).